

Alberto Onaindia eta Aitzol

Argia, 1.209. zk., 1988-07-31.

Joxe Ariztimuño "Aitzol" (1896) eta Alberto Onaindia (1902) Gasteizko seminarioan ezagutu ziren. Sei urteko aldea zuten. Formazioz, biak ziren apaizak, eta biak jaso zuten Leon XXIII.ak "Rerum novarum" (1891) enziklika bidez zabaldu zuen mezua: langileen egoera zela garrantzi handia zuena, eta Elizak arazo sozialaz zuela arduratu beharra. Hala izandu zen "*langileen aita-saindua*" bezala ezagutua.

Garrantzia badu orain hau aipatzeak. Errepublika 1931ean berri zenean, langileriaren mugimenduak indar-berritzen hasi ziren, eta Donostiari dagokionez, bertako udalak zuen egoitza batean hasi ziren eratzen beren mitinak. Gauza zenak hartu zuten aurrea, noski, beti bezala; kasu, honetan ezker espainol erakundeak, eta aurretik anarkistak eta komunistak.

Behin, gaiso zegoen Lizardi bisitatzetik kotxez Donostiara zetozela, Teodoro Hernandorenak esan zion Aitzol'i, ea zer egiten zuten apezak, Elizak langileenganako zituen konpromezuak bete gabe. Arazo sozialaren alorra, Elizaren aurkako jokabidea zutenei osorik utzia zutela eta berdin gertatzen ari zela alor politikoan ere, abertzaleek kokilduta zeudela, ez zirela aurkakoei aurpegia ematen ausartzen.

Aitzol-ek berehala ulertu zuen, noski.

Garai hartan, Don Alberto Buen Pastorreko elizan hitzaldi sonatu batzu ematen ari zen, eta hala, Hernandorena bera izango zen aurkezpena egingo zuena, eta Onaindia eta Aitzol arazo sozialaz hitz egingo zutenak.

Eta halaxe gertatu zen, "*Aitzolek eta neuk*" dio Don Albertok, "*1932.go Abenduak 10ean egin genuen agerpenak eskandalizatu zuen Euskal Herri guztia. Gau hartan elkarrekin agertu ginen publikoki Donostiako "Sala de Declamación Vasca" deritzan aretoan. Entzulegoaren ehuneko larogehitahemeretzi marxistak eta akratak ziren. Sozialistak eta komunista batzuk, eta batez ere anarkistak bete zuten aretoa eta inguruko kalea*". Bost milatik gora langile bildu zirela jotzen jardun ziren hurrengo egunean "El camarada cura" tituluarekin egunkarietan agertu zena.

"*Hiru ordu luzez aritu ginen eztabaida gogorrean*", dio Don Albertok.

Kontuan edukitzekoa da Aita Onaindiak aipatzen duen egoera hura. Eskuindarrek esan zituzten esatekoak bi apaizen aurka, Kristoren hitza gizonen aurrean defendatzera ausartu zirelako.

Halako inpresioa egin zuen berrikuntza ausart honek, aurrera jarraituz.

Hurrengo 1933.go Urtarrilean Erreterian izan zen; ez zuen Aitzol-ek etortzerik izan, gaiso bait zegoen, eta Onaindiak dionez oheratuaren ondoan afaldu zuen gau hartan. Geroztik, elkar izaten ziren arazo sozialaz, maiz idazten zituztenaz hitzegiteko. Batek "El Dia"ko sozial arazoetarako orrialdean, eta bizkaitarrak Bilboko "Euzkadi"n.

Eskuindarrak ahalegin ziren Mugica gotzaiaren aurrean ekintza hauek erroetatik mozten. Eta urte honetako Ekainean argitaratu zuen gotzai jaunak Gasteizko Eliz-Boletinean zirkular bat, apaizei eztabaidak debekatzen eta prentsako lanak galerazten.

Aitzol-i pertsonalki debekatu egin zion "El Dia"n –osorik independentea zen egunkarian– idazketako kontseiluan parte hartzea.

Honelakoak ziren gure Herriko apaizen pekatuak.

Aitzol hil zuten bezala hilko zuten, Don Alberto; hau ez zuten harrapatu ordea, eta bere anai nagusia, Zelestino, bota zuten tiroz Hernanin.